



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA
ARRIGORRIAGAKO UDALAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA, HIRIKO
HONDAKINEN TRATAMENDUAREN
ZERBITZUAREN PRESTAZIOA EGITEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL
AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA PARA
LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE
TRATAMIENTO DE RESIDUOS URBANOS.

Bilbon, 2021ko _____ an

En Bilbao, a _____ de _____ de 2021

BILDU DIRENAK

REUNIDOS

Batetik, **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA** eta bere ordezkari gisa **AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA** anderea, Iraunkortasuna eta Inguru Naturala Zaintzeko Saileko foru diputatua, _____ egin zen Gobernu Kontseiluko erabakiaren bidez ahaldunduta.

De una parte, la Excm. **DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**, representada por D^a. **AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA** en calidad de Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural facultada mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de _____.

Eta bestetik, **MAITE IBARRA GOTI** jauna/andrea, **ARRIGORRIAGA Udaleko** alkatesa legez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bidez emandako eskurantzetan oinarrituta, hitzarmen hau sinatzeko eskumena duena..

Y de otra parte, D^a **MAITE IBARRA GOTI** en su calidad de **alcaldesa** del **Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA** facultada para la firma del presente convenio en base a las atribuciones conferidas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Bakoitzak bere eskumenez baliatuz jardun du eta denek ere hitzarmen hau formalizatzeko ahalmena eta eskumena aintzatetsi diote elkarri.

Dichas partes, en razón de sus respectivas competencias y reconociéndose poderes y facultades para formalizar el presente convenio.

AZALDU DUTENA

EXPONEN

LEHENENGOA. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko azaroaren 20ko 1386/2013/EB Erabakiak, zeinaren bidez ezarri zen Erkidegoaren Ingurumenaren arloko Zazpigarren Ekintza Programa, aitortzen du badagoela kezka berezia prebentzio, berrerabiltze eta birziklatzearen bidez hondakinak baliabide bihurtzeko

PRIMERO.- La Decisión 1386/2013/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de noviembre de 2013, por la que se establece el Séptimo Programa de Acción Comunitario en Materia de Medio Ambiente reconoce la existencia de una especial preocupación por transformar los residuos en recursos, con más prevención, reutilización y reciclaje.

BIGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiak, hiri-hondakinei dagokionez, iraunkortasunera bideratutako kudeaketaren aldeko apustua egiten dute. Hala, hondakinak kudeatzeko aukeren hierarkia komunitarioarekin bat, bertan dauden baliabide gehienak aprobetxatu nahi dituzte. Horri jarraiki, lehenasunez prebentzio-jarduketak garatu behar dira, birziklatzeko eta balioa emateko jarduerekin batera eta, azkenik, hondakinen gainerako zatia modu seguruan deuseztatuko da, arriskugarritasuna murriztu ostean.

SEGUNDO.- La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una gestión de los residuos urbanos orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos de acuerdo con la Jerarquía Comunitaria de opciones de gestión de los residuos, según la cual se deben desarrollar prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización y, finalmente, operaciones de eliminación segura para la fracción restante de residuos, una vez reducida su peligrosidad.

HIRUGARRENA.- Erakunde bien iritzi, hiri hondakinen tratamendua kudeatzerakoan beharrezkoa da ingurumenean eragin negatiborik ez egoteko aurreneurriak hartzea eta ingurumena babesteko mailarik handienak erabiltzea, indarrean dagoen araudia eta garapen iraunkorraren printzipioak bete ahal izateko.

TERCERO.- Ambas Instituciones entienden que el tratamiento de los residuos urbanos debe gestionarse de manera que se prevengan efectos negativos sobre el medio ambiente con los máximos niveles de protección medioambiental que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios de desarrollo sostenible.

LAUGARRENA.- Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko

CUARTO.- De conformidad con lo dispuesto en el art.

3/1998 Lege Orokorraren 74. artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, hiri-hondakinei dagokienez Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio udal-jarduerak koordinatzea, arlo honetan zerbitzuak era osatuan betetzearren, eta hondakinak kudeatzeko azpiegiturak bultzatzea.

BOSGARRENA.-Hitzarmen hau administrazioen arteko hitzarmentzat jotzen da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2. artikuluan ezarritakoa sailkapenarekin bat.

SEIGARRENA.- Eskumen hauek egikaritzean, Bizkaiko Foru Aldundia da titular bakarra edo eskubide publikoko edo pribatuko beste erakunde batzuekin batera aritzen da hondakinak kudeatzeko azpiegitura hauen titulartasunean:

- 5 transferentzi toki hondakinak biltegitratzeko: Durango, Gernika, Berriatua, Zalla eta Igorre.
- 23 Garbigune.
- Amorebieta-Etxanoko BZB planta, ontziak eta ontzien hondakinak kudeatzeko.
- BERZIKLATU Ortuellan, hondakin handiak tratatzeko.
- Konpostegia Bilbon, 5. edukiontzia bidez gaika bildutako zati organikoa eta udaletako inausketa eta lorezaintzan geratzen diren hondakinak tratatzeko.
- Zabalgardi Bilbon, hiri-hondakinen balorizazio energetikorako.
- Hiriko hondakin solidoen tratamendu mekaniko biologikoa egiteko Tratamendu Mekaniko Biologikoko (TMB) Planta.

ZAZPIGARRENA. Apirilaren 10eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 44/1986 zenbakidun Dekretuaren bitartez, Garbiker M.P. A.B., S.A. Sozietatea eratu zen kapital publikoko sozietate anonimo gisa. Bere helburu soziala hondakinak kudeatzea da eta hitzarmen honen helburua den hondakinen kudeaketaren ardura dauka.

ZORTZIGARRENA.- Urriaren 30eko 192/2007 zenbakidun Foru Dekretuaren bitartez GARBIKER S.A.-ri baimena

74 de la Ley 3/1998, General de Protección del País Vasco, en materia de residuos urbanos corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia la coordinación de las actuaciones municipales en orden a garantizar la prestación integral de servicios en esta materia, así como el impulso de infraestructuras de gestión de residuos.

QUINTO.- El presente convenio se define como interadministrativo, a efectos de la clasificación establecida en el art. 47.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SEXTO.- En el ejercicio de estas competencias, la Diputación Foral de Bizkaia es titular único o participa con otras entidades de derecho público o privado en la titularidad de las siguientes infraestructuras de gestión de residuos:

- 5 estaciones de transferencia para el almacenamiento de residuos: Durango, Gernika, Berriatua, Zalla e Igorre.
- 23 Garbigunes.
- La planta de BZB en Amorebieta-Etxano, para la gestión de los envases y residuos de envases.
- BERZIKLATU en Ortuella. para el tratamiento de los residuos voluminosos.
- Konpostegi en Bilbao para el tratamiento de la fracción orgánica recogida selectivamente procedente del 5º contenedor y las podas y jardinería municipales.
- Zabalgardi en Bilbao para la valorización energética de los residuos Urbanos.
- La Planta de Tratamiento Mecanico Biologico (TMB) para el tratamiento mecánico biológico de los residuos sólidos urbanos.

SÉPTIMO.- Por Decreto de la Diputación Foral de Bizkaia nº 44/1986 de 10 de abril, se crea la Sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A. como sociedad anónima de capital público siendo su objeto social la gestión de los residuos y teniendo encomendada la gestión de los residuos objeto del presente convenio.

OCTAVO.- Mediante Decreto Foral nº 192/2007 de 30 de octubre se autoriza a que la gestión, liquidación y

ematen zaio hiri-hondakinak tratatzeko zerbitzuaren prezio publikoa kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak 47. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenarekin bat, administrazio publikoek hitzarmenak sinatu ditzakete beste administrazio publiko batzuekin, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hotzeko, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazteko, herri-onurako jarduerak egiten laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraukortasunaren arloko legeria betetzeko.

HAMARGARRENA.- 1998. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arrigorriagako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, erabilitako ontziak kudeatzeko.

HAMAİKAGARRENA.- 2008ko uztailaren 30ean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arrigorriagako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, hiri-hondakinen tratamendurako.

HAMABIGARRENA.- 2013ko uztailaren 17an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal sozietateak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, berrerabil daitezkeen hondakinen tratamendurako.

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal sozietatea Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Etxebarri, Orozko, Urduña, Ugao-Miraballes, Zaratamo eta Zeberioko udalen berezko baliabidea eta zerbitzu teknikoa da.

HAMAHIRUGARRENA.- 2014ko urriaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arrigorriagako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten, frakzio organikoaren tratamendurako (5. edukiontzia).

HAMALAU GARREN.- Parte-hartzaileek ekimen hau abian jartzeko behararen jakinaren gainean daude, eta beraz, Hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, deskribatutako zerbitzuaren lankidetzeta burutzeko baldintzak arautzeko. Zerbitzuaren kudeaketa ondorengo baldintza hauen arabera izango da:

recaudación del precio público por el servicio de tratamiento de residuos urbanos sea realizado por GARBIKER S.A.

NOVENO.- El art. 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece la posibilidad de que las Administraciones Públicas puedan establecer convenios con otras Administraciones Públicas que tengan por objeto mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

DÉCIMO.- En el año 1998, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Arrigorriaga firmaron un convenio de colaboración para la gestión de los envases usados.

UNDÉCIMO.- Con fecha 30 de julio de 2008, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Arrigorriaga firmaron un convenio de colaboración para el tratamiento de los residuos urbanos.

DUODÉCIMO.- Con fecha 17 de julio de 2013, la Diputación Foral de Bizkaia y la sociedad Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal firmaron un convenio de colaboración para el tratamiento de la fracción reutilizable.

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal constituye un medio propio y servicio técnico de los Ayuntamiento de Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Etxebarri, Orozko, Orduña, Ugao-Miraballes, Zaratamo Zeberio.

DECIMOTERCERO.- Con fecha 14 de octubre de 2014, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Arrigorriaga firmaron un convenio de colaboración para el tratamiento de la fracción orgánica (5º contenedor).

DECIMOCUARTO.- Conscientes los intervinientes de la necesidad de poner en marcha esta iniciativa, acuerdan suscribir el presente Convenio para regular las condiciones en las cuales se va a realizar la colaboración en la gestión del servicio descrito, con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA.

Honako hitzarmen honen helburua hiriko hondakinen tratamenduaren zerbitzuaren prestaziorako bi alderdien arteko lankidetzaz garatuko diren baldintzak erregulatzea da, beti ere onartuta adierazi den zerbitzua Garbiker S.A. Foru sozietate publikoaren bidez emango dela onartuz.

Zerbitzu honek ondorengoak hartzen ditu barne:

A.- Masan bildutako hondakinak tratatzea.

B.- Tamaina handiko hondakinak tratatzea.

C.- Etxeko hondakinen frakzio organikoa eta udalerrien sarea jasotako inausketen hondakinak tratatzea.

D.- Ontzien hondakinak tratatzea.

BIGARRENA.- ALDERDIEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK ETA OBLIGAZIOAK

1.-Hondakinak tratatzeko zerbitzua Bizkaiko Foru Aldundiak emango du. Aurretiaz, ARRIGORRIAGAKO udalak horiek guztiak bildu eta, hondakin batzuen eta besteen izaeraren arabera, hiri hondakinak tratatu eta transferitzeko egokia den instalaziora garraiatu beharko ditu.

2- Ontzien hondakinak bildu eta garraiatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak espaloiko edukiontziaz jarriko ditu udalarekin aurretiaz adostutako lekuetan.

3.- Bizkaiko Foru Aldundia hondakinen tratamenduaz arduratuko da, ingurumena zaintzen duen sistema iraunkor bat, ekologikoki arduratsua dena, erabilita

CLÁUSULAS

PRIMERA.- OBJETO.

El objeto del presente convenio es regular las condiciones en las que se va a desarrollar la colaboración entre las partes para la prestación del servicio de tratamiento de residuos urbanos, aceptando que dicho servicio sea prestado a través de la sociedad pública Foral Garbiker S.A

Este servicio engloba, entre otras, las siguientes prestaciones:

A- Tratamiento de los residuos recogidos en masa.

B- Tratamiento de los residuos voluminosos.

C - Tratamiento de fracción orgánica del residuo doméstico y podas municipales.

D - Tratamiento de envases.

SEGUNDA.- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDOS POR LAS PARTES.

1.- El tratamiento de los residuos se prestará por la Diputación Foral de Bizkaia, una vez recogidos por el municipio de ARRIGORRIAGA y realizado su transporte hasta la planta de transferencia o tratamiento de residuos que corresponda, de acuerdo con la naturaleza de las distintas fracciones.

2. - Para la recogida y transporte, por su parte, de los residuos de envases, la Diputación Foral de Bizkaia dispondrá de contenedores de acera en los puntos acordados previamente con el Ayuntamiento.

3.-La Diputación Foral de Bizkaia procederá a su tratamiento de una forma medioambientalmente sostenible y ecológicamente responsable.

4.- Ontzien kasuan, edukiontzia bildu eta garraiatuta, zein transferentzia-gunean edo tratamendu instalazioan jasota, Bizkaiko Foru Aldundia hondakinen jabe eta kudeatzailea izatera pasatuko da, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoaren arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu kudeaketaren antolaketaz arduratuko da eta GARBIKER AB S.A. sozietate publikoaren bitartez eskainiko du.

Lehen aipatutako hondakinak tratatzeari dagokionez eman beharreko zerbitzua GARBIKER AB. S.A. sozietate publikoak arautu beharko du.

Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera (IKS-eeM aplikazioaren erabilera) arautzen duen irailaren 25eko 183/2012 Dekretuan ezarrita dagoena betetzeko, ARRIGORRIAGAKO UDALAK bere ordezkari GARBIKERen esku utziko du, erakunde kudeatzaile eskuordetua (EKE) den aldetik, ARRIGORRIAGAKO UDALETIK tratamenduko edozein azpiegituretara heltzen diren hondakinen Onarpen Agirien (OA) eta Jarraipen eta Kontrol Agirien (JKA) kudeaketa elektronikorako, hitzarmen honen indarraldi osorako.

Hitzarmen honen I. Eranskin gisa doa IKS EEM sistemaren esparruan izapide eta jarduketara telematikoa egiteko ahalduzko agiria, ARRIGORRIAGAKO Udalak sinatu behar duena.

5.- Hitzarmen honi jarraiki Bizkaiko Foru Aldundiak eskainiko duen Zerbitzuaren prezioa Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretu bitartez adostutako prezio publikoa izango da. Foru Dekretu honek otsailaren 12ko 7/2019 Foru Dekretua aldatuko du, hots, Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako hiri-hondakinak behin betiko ezabatzeko tratamendu-zerbitzuaren prezio publikoa ezartzea eta bere arauketa garatzea erabakitzen duena.

6.- Prezio publikoaren kudeaketa, likidazioa eta bilketa Garbiker sozietateak egingo du, urriaren 30eko 192/2007 Foru Dekretuaren 5. artikulua xedatutakoarekin bat etorri.

4.- Bien mediante la recogida de los contenedores, en el caso de la fracción envase, o bien mediante su recepción en la planta de transferencia o planta de tratamiento correspondiente, la Diputación Foral de Bizkaia pasará a ser poseedora y gestora de los residuos, en los términos establecidos en la Ley 22/2011 de 28 de julio de residuos y suelos contaminados.

La Diputación Foral de Bizkaia será responsable de la organización de la gestión del servicio, que lo prestará a través de la sociedad pública GARBIKER AB, S.A.,

Corresponderá a la sociedad pública GARBIKER AB. S.A la regulación del servicio a prestar en lo que respecta al tratamiento de los residuos anteriormente citados.

Al objeto de cumplir con lo establecido en el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, por el que se regula la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales (utilización de la aplicación IKS-eeM), el AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA otorgará su representación a GARBIKER en calidad de Entidad Gestora Delegada (EGD) para la gestión electrónica de los documentos de aceptación (DA) y documentos de seguimiento y control (DSC) de los residuos procedentes del AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA con destino a cualquiera de las infraestructuras de tratamiento, por el mismo periodo de vigencia que este convenio.

Se adjunta como Anexo I al presente convenio el documento de otorgamiento de apoderamiento para la realización telemática de trámites y actuaciones en el marco del sistema IKS EEM que el Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA debe firmar.

5.- El precio del Servicio prestado por la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del presente Convenio será el precio público que se determine mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia y que modificará el Decreto Foral 7/2019, de 12 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por el servicio de tratamiento de residuos urbanos para su eliminación definitiva prestado por la Diputación Foral de Bizkaia.

6.- La gestión, liquidación y recaudación del precio público lo realizará la sociedad Garbiker de conformidad con lo dispuesto en el art. 5 del Decreto Foral 192/2007, de 30 de octubre.



Prezioa ARRIGORRIAGAKo Udalak zerbitzua eskaintzearen ondorioz faktura luzatzen den unetik zenbatzen hasita, 30 egunen buruan ordaindu beharko du.

Ahalmena ematen da prezio publikoaren ordainketa hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko Udalak izendatzen duen enpresa publiko kontratatzaileak egin dezan, edo bestela, hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua esleituta duen beste entitate baliokideren batek egin dezan.

Udalak izendatzen duen enpresak edo entitate baliokideak klausula honetan ezarritako 30 eguneko epean ordaintzen ez badu, Garbikerrek kobrantza-agiria ARRIGORRIAGAKo Udalari bidaliko dio eta azken horrek 15 eguneko epea izango du zenbatekoa ordaintzeko.

Prezioen zenbatekoak ezarritako epean ordaindu ezean, ARRIGORRIAGAKo Udalak betearazpen bidean ordaindu beharko du.

Halaber, prezioa behin eta berriz ordaindu gabe uzten bada, HITZARMENA deuseztatu ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak, eta aurrekontu izendapena zehaztu beharko du ARRIGORRIAGAKo Udalak behar beste denbora lehenago.

HIRUGARRENA.- PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.

HITZARMEN hau sinatzeak ez dakar alde sinatzaileek dituzten eskumenei uko egin behar izatea edo eskumenak aldatu behar izatea. Bi aldeek hitzarmenaren ondoriozko konpromisoei datxekien eskumenak baino ez dituzte bere egingo.

1.- Hitzarmenaren sinatzaileek hitzarmen honetan xedatutakoaren babespean dauden betebeharren eta hitzarmena garatzeari eta gauzatzeari buruz hartutako erabakien ez betetze larriak edo etengabeak egiten badituzte, kaltetuak ez betetze hauek alde aurretik ebazteko eskumena izango du eta ez betetzearen egileak ebazpen horren ondoriozko kalte-galerak ordaindu beharko ditu. Horrez gain, beste aldeak, horrela erabakiz gero, aukera izango du eskatzeko bete ez diren betebeharrak betetzeko, kalte-galerengatik jaso beharreko kalte-ordainketarekin batera.

2.- Bi aldeek berariaz hitzartu dute hitzarmen honetan

El precio deberá ser abonado por el Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA en el plazo de 30 días contados a partir de la recepción de la factura emitida por la prestación del servicio.

Se faculta para que el abono de dicho precio público sea realizado por la empresa pública contratante del servicio de recogida y transporte de residuos que el Ayuntamiento designe o figura equivalente que tenga atribuida la prestación del servicio de recogida y transporte de residuos.

En caso de impago por parte de la empresa o figura equivalente designada por el Ayuntamiento en el plazo de 30 días recogido en la presente cláusula, Garbiker enviará el documento de cobro al Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA y este deberá abonar el importe correspondiente en un plazo de 15 días.

El incumplimiento del pago del precio en los plazos señalados, dará lugar al cobro del mismo a través de la vía ejecutiva al Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA.

Asimismo, si el impago es reiterado, podrá dar lugar a la rescisión del CONVENIO por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, siendo de cuenta del Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA fijar con suficiente antelación la consignación presupuestaria precisa.

TERCERA.- CONSECUENCIAS DE LOS INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDAS POR LAS PARTES.

La firma del presente CONVENIO no implica renuncia ni alteración de las competencias que tienen atribuidas las partes que lo suscriben, las cuales asumirán exclusivamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que se derivan del mismo.

1.- El incumplimiento grave o reiterado por parte de los convenientes de las obligaciones asumidas al amparo de lo establecido en este Convenio, así como de los acuerdos adoptados en desarrollo y ejecución del mismo, facultará al perjudicado a resolver anticipadamente el mismo, con la consiguiente obligación del incumplidor de indemnizar por los daños y perjuicios que se derivasen de tal resolución o, a opción de la otra parte, a exigir el cumplimiento de las obligaciones quebrantadas, asimismo con la correspondiente indemnización de daños y perjuicios.

2.- Las partes expresamente estipulan que los daños y

onartutako betebeharrak ez betetzearen ondoriozko kalte-galerek barne hartuko dutela, edozein kasutan eta mugarik gabe, ez betetzea egin zenetik sortutako interesen ordainketa (diruaren hileko legezko interes-tasan oinarrituz) eta horretarako ez da beharrezkoa izango errekerimendurik ezta intimiziorik.

LAUGARRENA.- JARRAIPIEN BATZORDEA.

Hitzarmen honetan jasotzen ez diren eta etorkizunean sor daitezkeen gaiei irtenbidea aurkitzeko helburuarekin (hiri hondakinen arloan zatiki berriak sartzea, zerbitzuaren maiztasuna, etab.) eta, halaber, alderdi sinatzaileen arteko lankidetzak bideratzeko, hitzarmenaren betearazpenean sor daitezkeen interpretazio-arazoak ebazteko, betearazpen horren jarraipena eta kontrola egiteko eta hartu diren konpromisoak betetzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da agiri honetan aipatzen diren erakundeen ordezkari bina egongo dira batzorde horretan.

Agiri honetan aipatzen diren erakundeen ordezkari bina egongo dira batzorde horretan.

Hain zuzen, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkariak Ingurumeneko zuzendari nagusia eta Garbiker AB SA sozietatearen gerentea izango dira.

Batzorde hori behar beste aldiz bilduko da, alderdi bietako edozeinek eskatuta.

BOSGARRENA.- HITZARMENAREN KOORDINAZIOA, INFORMAZIOA, GARAPENA ETA GAUZATZEA.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta ARRIGORRIAGAKO Udalak konpromisoa hartzen dute eska dakiekeen arduraz bakoitzari dagokion zerbitzuaren zatia burutzeko. Bi aldeen arteko harremanetan koordinazio-printzipioari emango diote lehentasuna, zerbitzuaren garapena ona izate aldera.

Hitzarmen honen alorrean, hondakinen kudeaketan sortutako elkarrenganako informazio-fluxua egongo da, Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri-hondakinen Behatoki Iraunkorraren bitartez. Bi aldeek euren esku dauden datuak eta estatistikak emango diote elkarri, ingurugiroari buruzko informaziorako sarbidea errazteko. Hau da, garapen jasangarriko eredu baten alde aurrerapausoak emateko

perjuicios que pudieran derivarse de cualquier incumplimiento de las obligaciones asumidas en el presente convenio incluirán, en cualquier caso y sin carácter limitativo, el pago de los intereses calculados al tipo de interés legal del dinero con carácter mensual, que se devenguen desde la fecha en que se produjo el incumplimiento, sin que para ello sea necesario requerimiento ni intimación alguna.

CUARTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.

A fin de solventar las cuestiones no recogidas en el presente Convenio y que pudieran surgir en el futuro (inclusión de nuevas fracciones de residuos urbanos, frecuencia de servicio, etc.), asimismo como cauce para la cooperación entre las partes firmantes y para la resolución de los problemas de interpretación y seguimiento y control de la ejecución del convenio y cumplimiento de los compromisos asumidos, se constituirá una Comisión de Seguimiento.

En la misma participarán dos representantes de cada una de las dos entidades representadas en este documento.

Estará integrada por parte de la Diputación Foral de Bizkaia por el titular de la Dirección de Medio Ambiente, y la persona titular de la Gerencia de Garbiker A.B S.A.

Dicha Comisión se reunirá cuantas veces resulte preciso a requerimiento de cualquiera de las partes.

QUINTA.- COORDINACIÓN, INFORMACIÓN, DESARROLLO Y EJECUCIÓN DEL CONVENIO.

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de ARRIGORRIAGA se comprometen a llevar a cabo con la diligencia exigible la parte que respectivamente les corresponde del servicio, primando en las relaciones entre las partes el principio de coordinación para una buena marcha del mismo.

En el marco de este convenio existirá un flujo de información recíproca generada en la gestión de los residuos a través del Observatorio Permanente de residuos urbanos del Territorio Histórico de Bizkaia. Ambas partes se aportarán los datos y estadísticas que obren en su poder para facilitar el acceso a la información ambiental; las labores de sensibilización, y



sentsibilizazio-lanak eta herritarren partaidetza aktibo eta eraginkorrera bideratutako lan guztiak emango diote elkarri.

SEIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen honek, hondakinak kudeatzeko bultzatzen duen eredia mantentzen den bitartean, lau urteko iraunaldia izango du.

Gorago ezarritako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako

ZAZPIGARRENA. HITZARMENA ALDATZEA.

Hitzarmen hau alderdiak ados jarrita aldatu daiteke.

ZORTZIGARRENA. HITZARMENA AZKENTZEA.

Arrazoi hauengatik azkenduko da hitzarmen hau:

- Haren xede diren jarduerak bete izanagatik.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzeagatik, hura luzatzeko erabakia hartu gabe.
- Sinatzaile guztiak aho batez hala erabakitzeagatik.
- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzeagatik.
- Epaileek deuseztasuna adierazteko emandako erabakiagatik.
- Hondakinak kudeatzeko foru eredia aldatzeagatik.
- Legeetan aurrez ikusitako beste edozein arrazoiengatik.

todas aquellas labores de difusión encaminadas a una participación activa y efectiva de la ciudadanía para avanzar en un modelo de desarrollo sostenible.

SEXTA.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO.

El presente Convenio tendrá un plazo de duración de cuatro años mientras se mantenga el modelo de gestión de residuos que sustenta este convenio.

En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto anteriormente, los firmantes podrán acordar unánimemente una prórroga de hasta cuatro años adicionales.

SÉPTIMA.- MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.

El presente Convenio podrá ser modificado por acuerdo de las partes.

OCTAVA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

El presente convenio se extinguirá por las siguientes causas:

- Cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.
- Por el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por cambio en el modelo foral de gestión de residuos.
- Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

BEDERATZIGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalen babesaren arloan hitzarmen honi aplikatu behar zaizkion arauak hauek dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena.

Hitzarmen honen barruko jarduerak aztertu ondoren, baieztatu ahal da berau sinatzean ez dela datu pertsonalen tratamendurik egingo. Hitzarmena gauzatu eta indarrean dagoen bitartean datu pertsonalen tratamendua dagoela ikusten bada, berariaz erregulatuko da, idatziz, esku hartzen duten subjektuei eta dagozkien eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

HAMARGARRENA. - ESKUMENEKO JURISDIKZIOA.

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa dauka. Hitzarmen honen ondoriozko auzigaiak bi aldeen adostasunari esker ebatziko dira.

Hitzarmen honen interpretazioak, aldaketak, eraginak zein ebazpenak eragin ditzaketan auzigaiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio Ordenak ezagutuko ditu eta bere eskumena izango dira, Jurisdikzio Ordena hori arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46.2. artikuluan ezarritako baldintzak. Foru-dekretu horrek, izan ere, BLHko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago; izan ere, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47. artikuluan eta hurrengoetan

NOVENA.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

La normativa aplicable al presente Convenio en materia de protección de datos es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

Analizadas las actividades del presente Convenio, se puede aseverar que a la firma del mismo no se realiza tratamiento de datos personales. Si durante el devenir de la materialización del Convenio y durante su plazo de vigencia se detectara que se produce tratamiento de datos personales, se procederá a su regulación específica, por escrito, en cuanto a los sujetos intervinientes, derechos y obligaciones correspondientes.

DÉCIMA.- JURISDICCIÓN COMPETENTE

El presente Convenio tiene naturaleza jurídica administrativa. Las cuestiones litigiosas que surjan del presente convenio serán resueltas de común acuerdo por las partes.

Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del presente Convenio serán de conocimiento y competencia del Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo, a tenor de lo establecido en la Ley de 13 de julio de 1998, reguladora de tal Orden Jurisdiccional.

El convenio cumple con los requisitos establecidos en el art. 46.2 del Decreto Foral de la DFB 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del THB, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.

Está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, rigiéndose por lo estipulado en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de



xedatutakoaren mendean dago.

Hori erabaki dute bi aldeek egintza honetan, eta erabakitakoari buruzko adostasunaren froga modura, HITZARMEN honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

IRAUNKORTASUNA ETA INGURU NATURALA
ZAINZEKO FORU DIPUTATUA
DIPUTADA FORAL DE SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
NATURAL

Sin./Fdo.: Amaia Intxaustegi Ziarda.

Régimen Jurídico del Sector Público

Así lo acuerdan las partes en este acto y, en prueba de conformidad con lo acordado, firman el presente CONVENIO por duplicado ejemplar en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

ARRIGORRIAGAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ARRIGORRIAGA

Sin./Fdo.: Maite Ibarra Goti.